

Denbora errealeko PCRako hasarazleen eta zunden diseinua

Hainbat enpresek hidrolisi zundak eta hasarazleak eskaintzen dituzte Sybgreen eta beste agenteen (IDT; Quiagen, Sigma, Thermofisher Scientific, etab) entseguetan erabiltzeko.

Thermofisher Scientific konpainiak gene-adierazpeneko 1.800.000 Taqman entsegutik gora ditu, 30 organismo-espezie baino gehiagorako. Taqman zundaren eta *Forward* eta *Reverse* hasarazle espezifikoaren *mix* batean datza. Baliozkotuta daude, hortaz, ez da erreakzioa optimizatzeko prozesurik egin behar.

Taqman Gene Expression Assays gaiaren inguruan informazio gehiago nahi izanez gero, bisitatu Life Technologies konpainiaren webgunea (www.invitrogen.com).

Aipatutakoaz gain, beren zunda-entseguak eskaintzen dituzten konpainia gehiago daude, Sigma-Aldrich batik bat, aurretik diseinatuta dauden eta SybrGreen-ekin bateragarri diren mila pare zunda ditu eta.

Link interesgarriak

- Informazio-eskuliburuak:

[Real Time PCR Vs. Traditional PCR](#)

[Real Time PCR Systems_Chemistry Guide](#)

- Hasarazleen sintesia:

[Primer design](#)

[Larova](#)

[Lgc Genomics](#)

- Hasarazleak diseinatzeko programa:

[Primer3 Hasarazlea](#)